




ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

16 Urtea 1934'ko Garagarila 186 Zenbakia

Uzkurtza edo Erlijioa

(GAZTETXOENTZAT)

EROSPENA (EREDENTZOA)



URE pekatuen zofak ordaindu eta gu betiko eriotzatik ateratzeko Jesukristo gure Jaunak Nekaldi edo Pasioa igaro eta Gurutze do-
nean il nai izan zuen.

Adan'en pekatua ezin ordaindu.—Gure lenengo gurasoen *gaiztakeria neufigabe* aundia zan. Gizon batek besteari egiten

dion txarkeria, egin zaionaren aunditasunaren arauera aunditzen da. Mutiko batek bere lagun bat jo eta min aundia egitea oben edo pe-
katu aundia da; ogei urteko bateri au egitea, aundiagoa; aundiagoa e-
retore jaunari egitea; aundiagoa Gotzai edo Obispo Jaunari; aundia-
goa Aita Santuari.

Jaungoiko gure Jaunaren aunditasuna eta bikaintasuna neufigabekoa da.

Adan'en pekatuak eta gure pekatu lafiak neufigabeko gaiztakeria daukate.

Ori ordaintzeko neufigabeko ontasuna bear: oregatik gizona etzan ori ordaintzeko gauza.

Jaungoikoak, gizonetaz erukitu, gizon egin, Gurutzean gugatik il, gure zofak ordaindu ta zerurako bidea zabaldu zigun.

Josu'ren-Jesus'en itzak.—Bein batean Josu-Jesus apaltasun edo umiltasunaz ondo-ondo itz egiten ari zala, auxe esan zien ikasleai: *Gizonaren Semea (bere burua ola deitzen zuan) ezta mofoi-eske etofi; mofoi izatera eta bere bizia askoren erospenerako (efederentziarako) ematera baizik.* (Marc. X, 45).

Nikodemus'eri esanak.—Nikodemus juduen nagusienetakoa zan. Ara zer esan zion oneri: *Moises'ek basamortuan sugea goian jafi zuan bezela, gizonaren Semea ola jaso (gurutziltzatu) beafa da, beragan sinisten duan guztiak galdu gabe betiko bizitza eskuratu dezan.*

Jaungoikoak bere Semea ezpaitu mundua epaitzeko (juzgatze-ko), baizik zeruratzeko biali. (Joan. III, 14-18.)

Liburu Santuak diotenez, Jesukristo gure Jauna Gurutzean ilko da, mundua zeruratzeko.

Zerura juateko berak erakutsi duana siñistea eta egitea naikoa da.

LITURGIA.—Irurogei ta amargarrena edo Septuagesima deitzen dan igandetik asi eta Pentekoste'raño, Jesukristok guretzat Jaungoikozko bizitza irabazi ta guri emateko egin duana gogora ekartzen digu Elizak.

Mezan Gurutzeko egiazko jauskañi edo sakrifizioa befitzen da.

Jaiak.—Aste Santuak eta batez ere *Ostirala Santuak* Josu'ren-Jesusen neke ta eriotza gogorazten digu.

Ofila edo Maiatzaren 3'an eta Agofila'ren 14'ean egiten diran Gurutze donearen jaia gure Erospena edo Efedentzia adierazten digute.

Zeremoniak.—Sagara edo Mezerdikoan Apaizak iskindu edo kotsagaratuaz Josu-ren eriotza gogorazten digu.

Gauzak.—Elizako eta beste lekuetako Gurutzeak gauza bera adierazten digute.

Elizak—Elizik geienak Gurutzearen antza dute; aladarea, gutxi gora-bera, Jesus'ek burua eukiko zuan lekuan dago.

Egintza.—Josu-Jesus gure onagatik il dan ezkerre, buru-biotzeko indar guziaz maitatu eta bere aginduak bete bear ditugu.



BIOTZIK MINDUEN ETA MAITAGARIENA

Mariaren ilabete loredunari, Jesusen Biotzaren ilabete zituduna (frutuduna) dafaikio. Loren ondotik zitua bezala, Mariaren maitetasunaren ondotik Jesusena dator. Amak Semeagana garamazki. Aur kristauak Jesusengana dijoaz: «Aurrai utzi nigana etortzen eta etzaiozuela debekatu» itzak, guganaño datoz. Gure begiak zergatik Jesusen Biotzean jafi? Edozein maitalek biotza ostutzen ba'digu, guretzat Jesusen antzeko maitalerik azaldu eziu ditekkelako. Non arkitu

ofen biotz aundi, on, emale, eztsu, zoragafirik? Kristaueria argatik dijoa Biotz ofengana. Baño zer jauresten (adoratzen) dugu or? — Jesusen aragizko Biotz Jaungoikozkoa adoratzen dugu or. Biotz ori izan zan alako maitetasun biziz urtutzen bizitu, eta maitetasun ofek iltzeraño ekari zuena. Biotz ori da, gure naigaben gozagari, izateko, iltzeko aurfan Aldareko Sakramentuan gure janari egiñik gelditu zana. Baño ofen jaieraz Biotz ori eztegu utsik agurtzen. Berofen bidez guganako Jesusen maitetasun neufigabe ta geiegia adoratzen dugu. Jesus berak eskatu digu jaiera au. Zertarako? Aren Biotz maitatiari zor zaion maitetasuna emateko; Berari ematen zaizkion naigabeak eta egiten zaizkion irain eta txarkeriak ordaintzeko; geienik zor diogun, eta gutxienik erantzuten diogun Biotz minduari ordañezko al duguna eskeintzeko; Biotz ori gure erredutzat artzeko ta, ofen ondasunaz aberastutzeko. «Bai on eta atsegingafi dala Biotz ontan bizitzea» (Bonabentura d.)



Deus noster, refugium et virtus

(XLV'garen salmua)

I

Yainkoa da gure gorku,
gure indar eta euskari;
estualdi larietan
gurekin izan da beti.

Argatik ez gera beldur
naiz lur guzia ikaratu,
naiz mendiak aldatu ta
itsas-erdian landatu.

Naiz itsas-ugin eruek
oro egin ta naasi,
naiz ur oien erasoaz
mendiak ere inarosi.

Gudaralden Yauna gure alde,
Yakob-en Yainkoa gure estalpe.

II

Ibai batek bere ur gozoaz
alaitzen du Yainko-iria;
an ezari du Gorenak
bere atseden-tokia.

Yauna bere erdian du ta.
ezta sekula igituko,
Yainkoak eusten baitio
goizik argitu orduko.

Eriak naasi dira
ta yaurgoak dardaratu,
Yainkoak oi u egin ta
lur guzia kordokatu.

Gudaralden Yauna gure alde,
Yakob-en Yainkoa gure estalpe.

III

Atozte ta ikuskizue.
Yaunaren egin-andiak,
ondatu ditu lurretik
gudu galgari guziak.

Gezi-makoak autsi ta
sistagak puskatu ditu,
gudu-orga ta iskilluak
sutan ere ta eraustu.

«Geldi zaitzte, ta ikusi
ni zaizela Yainkoa; ni
nausi afotz-erietan,
nausi nere luraldean.»

Gudaralden Yauna gure alde,
Yakob-en Yainkoa gure estalpe.

Iraizoz-ko Polikarpo A.

Itz gutxi ezagunak:—*Gorku*=gordeleku, igestoki (refugio); *inarosi*=astindu (sacudir); *yaurgo*=ereinu; *gezi-mako*=geziak irazitako makoa (arco de lanzar flechas); *sistaga*=lanza; *orga*=gurdi carro; *iskilo*=arma *eru*=sendo ta indartsu.



ONTASUN BIKAIN-MAITIA ¿ARKITU NAI?

(GAZTETXOENTZAT)



AUNGOIKO gure Jaunak «izar ditzake dunei goi aldean bidea egin dien bezela, norberari bizibide berexia eratu dio.»

Ezta nai izan Jaunak gizon eta emakume guziak biziera berdinean bakafari jafaitzerik.

Gaztetxea bizibide nagusi bi dira: ezkontuena bat; Jaungoikoaren gogo obeto betetzeko, ezkontugabe gelditzen diranena bestea.

Aukeratzeko, ordea, eginbehar zaila ote da?

Bakotzak aritu dezake nai duena: ezkontuena gaitza bazea, ar zazu bestea, gorputzeko eta biotzeko osotasunaren eskeini edera baño edera goa Jaungoikoari egina. Bizibide biek, berez on-onak dituzu. Ala ere.

Badakit zer diozun

Goi aldeko abotsak esango balidake, ezkontu zaitez, ezkontuko nintzake edo entzunaziko balidake, bizitz gordearen bila mundutik igeska zoaz jafaituko nioke; bañan bietarako gogo antza somatzen det batzuetan, bietarako bildura ez gero gutxitan, biotz gaixoa naasitzeraño beti; alditan oso ilun jartzen naiz.

Ez da aritzeko ori

Ezkontz zoritxareko batzuk ikusi baitituzu: beti istilu gofian dabilzan senar-emazteak. Nabaritzen zera badirala emazte efukigariak, senar gaiztoak amaika gezur esanez ta bear-beafian utzi dituztenak.

Olako etxeetako semeak gezurtiak, jokulariak, edari zaleak eta dirala ikusi dezu: alabak ere nai eta naiez, zer ikusi ura ikasten dalako, okefera artzen dutela badakizu.

Ori dakizulako bildura artzen dezu eta ezkontu gabe gelditu naiago dezu.

Ala guziz ez

Ezkontza berez ona dala irudi zaizu eta aitu izan dezu noski Paulo Deunak dionez «ondo egiten duela alabatxoa ezkontzen duen gurasoak» (I Cor. VIII-38.)

Beraz, Neskata zeran gaztea: Jaungoikoaganako bildurduna ezezik, arduratsua, eskuzabala, langile, senda dan mutila zure bila asiko balitz, zure ideko laguna etzende ori ezkontzeko?

Mutila zeranak, bear bezelako onoiñen eta onbidez apaindutako neskatxa arkituko bazenduke lagun bakan ori emaztegitzat? ez ote zenduke arituko?



Jesusganako maitasunez ezkontza bidea utzi eta lekaide etxeko biziera artzeko gogo senda goa dezula iduritzen bazea?.. Neke fikiagoa Jaunaren

aginduak au egitean izango ote dezun gogoak ematen dizu, bañan, guzia utzi eta alde egin bear... gogortxo oril..

Adiskideen bat edo aufetik joan dalako amets oiek ote dabilzkitzu?.. Bizibide ortan arantzarik izango eztezula edo esan ote dizute?..

Au lanal diozu; ilunpian zaude; zer egin estakizu. Bizitz ontako oñafia ezezik betiko bizitzaren oñafia da dagokidan bizibidea artzea. Zer egin bearko ote det uts ez egiteko?.. Ufengoan esango dizut.

OYARTZUNA.




Zu zera Jainko

izkutatua; Isra-

el'go Jainko ze-

ruratzalea. (Isai.

:: :: 45-15.) :: ::



GALDE-ERANTZUNAK

Jubileoa irabazteko zer egin?

«Aurten Jubileoa dala-ta ori irabazteko bear diran gauzak Apaiz jaunak esan dizkigu. Baño burutik joan egiten dira ta; Zeruko Argian esango ba'lizkigu atsegin artuko nuke». *Imoztar bat.*

Imoztar biotzekoa: Zure galdeari pozik erantzungo diot. Baño len esan nai dizut, Pazko zortzigafenetik asi-ta datoñen urteko Pazko zortzigafeneraño iraungo dula. Eta igaz Efoman irabazi zutenak ere, beñiro aurtego au irabazi dezaketela.

Ortarako lenengo beařezko gauza: *Ongi aitortu ta Jauna artzea*. Bigafena: Gotzaiak agintzen duten elizetara *amabi ikustaldi* egitea. Zenbat eta zein eliza ikusi bear diran artarako, alde bakoitzeko Apaizak esango dizute; baita bakoitzera zenbana ikustaldi egin ere.

Aita Santuak nai du ikustaldi oietan gure Erospenaz eta artarako Jesusesk eramandako nekeaz gogoratzea. Eta bakoitzari gogoak ematen dion otoitzaz gañera (landara), beařezkoa da:

Aldareko Sakramentu Santuaren aŕean *bost Aita gure, Agur Maria, Gloria Patri*, eta beste *Aita gure*, bat *Agur Maria* ta *Gloria* Aita Santuaren asmotan: Gero Jesu Kristo gurutziltzatuaren aŕean *iru Kredo* eta *bein* esan: *Jaures-ten (adoratzen) zaitugu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo, zure gurutzeaz giza-dia erosi zindulako*. Gero Jaungoikoaren Ama birgiñaren idurien baten aŕean; aren naigabeaz gogoratzeko *zazpi aldiz Agur Maria* esango dira, bein bakariřk otoitzxo au esanez: *Kristo Gurutziltzatuaren oñazeak biziro ezafi-izkidatzu*; edo oñen antzeko otoitzxoen bat. Azkenean Jesus Sakramentuan dagon aldarea- ren aŕera joanik, biotz bilduz *Kredoa* esan bezate.

Kristauak elizen ikustaldiok egiteko era ohea izan dezaten, Aita Santuak eskubidea ematen du nor bere pafokitik edo eliz-bařutitik kanpoan dagoneko, dagon tokiko eliza, artarako Gotzaiak izentatueta, ikustaldi oiek egiteko ta ofela jubileoa irabazteko.

Ikustaldi oiek guziak agindutako elizetan ezin egin dituztenai oiek aldatze-ko eskubidea Aita Santuak ematen du. Gaxotasunez edo beste eziñezko aundia daukatenai agindutako elizen orde, besteen batean ikustaldiak egiteko baimena *konfesoreak* eman dezaioke; baita ikustaldiak gutxitu ere, aien orde besto otoitz edo eginbideen bat jafiz. Baño artarako naiko izpide edo afazoi danean bakariřk. Ikustaldiak gutxitu aŕen Aita Santuak dauzkan asmotaz otoitz-egin bea-řa daukate ikustaldietatik kanpora. Aita Santuak agindutako otoitzak gaxo, eri edo miñez daukenai bakariřk gutxitu zaizkiokete.

Jubileoa irabazteko Pazkozko Jauna-artzeak edo komunikoak ezta balio. Azken orduan Elizekoak artzeko egiñak balioko luke baño. Geroztik Jubileoa irabazteko, Pazkok Jauna-artzeaz landara beste Jauna-artze bat beařezkoa da guztientzat.

Elizen ikustaldiak egiten asi ondoren gaitzak jo-ta, ikustaldirik egiteko bi-derik gabe gelditzen diranai, bear bezela aitortu ta Jauna artu ba'dute, barkapen oso-oso ematen die Aita Santuak ikustaldi guziak egin ba'lituzte bezelaxe.

Aita Santuak Urte Santu ortarako konfesoreai eskubide oso bereziak ematez dizkigu Jubileoa irabazteko aitortzen diranen onetan.

Oara. Gazte bati datoñean erantzungo diogu.

A. I.


Adora dezagun

Maestoso


E - ne mi - a, go - ra Je - sus mai - ta - ti - a! Ez




be-ñe - re az - tu az - ken A - pa - ri - a! Je - - sus e - gin zai -




- gu gu - re ja - na - ri - - a, o -- gi ta ardo or -- dez gu -



- re Jaun aun - di - a A - do - ra de - za - gun Je - sus Jainko Jau -



- na Sa - kra - men - tu - on tan gu - re - - kin da - go - - na




“TU ES PETRUS,,



TOZTE eta Apostoluen Efegea agurtu zazute, gaurko eguna, bere odola isuriaz, zeruko ateza-itzaile Pedro eta jakinduri aundiko Paulo Deunak, donetu zuten-ta. «Jainkoak emango aldigu uzkurtza erein zutenen agindu guztiak betetzeko laguntza» (Inv. Him. Or.)

Efomako Elizaren Artzaia

«Garai artan, Erodes Efegeak Pedro atze-man zuen eta giltzapean itxi zuan. Elizak aren alde Jainkoari otoi egiten zion eten gabe... Pedro lo zetzan bi gudamutilen erdian bi katez loturik. Ta ara, Jaunaren aingeru batek, barne ura argituz, zerutik azaldu ta Pedro sayetsean joaz esnatu zuan, esanaz: «Jaiki azkar» Kateak orduan aren eskuetatik askatu ziran ta aingeruak esan zion: «Gefikoa lotu ta oñetakoak jantzi»... Soingañekoa ezafi ta jafaitu nazazu» Irten zan eta jafaitu zion... Aiek irten da, bat-batean aingeruak alde egin zion ta Pedrok bere baitara itzulirik, esan zuan: «Orain zinez ikasi det, Jainkoak bere aingerua biali eta Erodesen eskutik eta judu efiaren itxokeri guztik libre jafi nauela» (Act. XII-11) Judutafak bota eta Pedro siñesgabekoen efietara abiatu zan, ludi guztiaren buru zanekeo Efomaraño iritxiaz. An geratu eta bere bizilekua ezafirik, 25 urte agindu ondoren, bizitza kendu zioten eta bere gorpuzkia Pedro Deuna izeneko Eliz-Nagusaren aldarepean dago. Jesusek jafitako Elizak, afezkero Efomako Elizaren izena artu zuan, Jesukristoren ordezkua eta apostolu guzien buruak, Efomako Gotzaia zala, bertan isuri baizuan bere odola eta egun ura ezkerio jafaitu dioten aita santuen bizilekua ura izan da. Argatik Leon Aita Santuak gaurko egunean esaten du: «Anai guztiz maiteak, mundu guztiak santuen jaiak ospatzen ditu eta siñismen berekoak izateak, guzien erospenarako lagundu zutenen jai-egunak, eta alaitasun beraz egitera beartzen gaitu. Ala guztiz ere, gaurko jaia mundu guztian egin bear dan alaitasunaren gañekoaz Efoman egin bear da, bertan siñismena agertzeafen bere odola isuri zuten-eta argatik beste efietan baño alaitasun aundiagoa agertzea guztiz beafezkua da. Oiek baitira zugana Kristoren egia ekafi zuten afigafizko gizon aiek eta afezkero gezufen irakasle eta itufia izan ziñan ori, egia-aren ikasle itzuli ziñan. Ainbeste goratu zinduten apostolu aiek, abefi guztiz deuna, efege eta apaiz-nagusien efiia izateraño eta zorioneko Pedro Deunaren egonlekuagatik mundu guztien buru egin ziñan! Uzkurtzak irabazi dizun nagusitasuna, zure efi-agintariak menderatu gabeko alderdietaraño zabaltzen da» (w. 2 Noc.)

Eliz guztien Artzaia

Pedro deuna

«Jesusek esaten die: «Zuek, befiz, nor naizela diozute? Pedro Simonek erantzunaz esan zion: Zu zera Kristo, Jainko biziaren Seme «Ta Jesusek erantzun zion: «Zoriontsua zera, Simon Bar Jona ori, ez baitizu aragiak ez odolak gogoan eman, nere Aita goikoak baizik. Nik, befiz, esaten dizut: «Aitz zera zu, ta aitz onen gañean nere Eliza eraikiko det eta lezeko ateak ez dira aren aurka garailari izango. Ta zeru-jaureriko giltzak zuri emango dizkitzut ta guk lufean lotua, zeruan ere lotua izango da; ta zuk lufean askatua, zeruan ere askatua izango da.» Pedrok, apostolu guzien ize-
nean bere siñismena onela agertzen du «Zu zera Kristo, Jainko biziaren Semea» Jainko

biziaren semea dio eta ez Jainkoak bezela agertzen diran Jainko aietakoa, aiek gezufezkoak baitira. Bere jainkotasuna aitortu dualako, esker ona erakutsi nai dio Jesusek, esanaz: «Zu zoriontsua zera» Zergatik ote? «Ez baitizu aragiak ez odolak ori gogoan eman ere Aitagoikoak baizik» Aragiak eta odolak ezin agertu izan diote, baizik Espiritu Santuaren esker edo graziak. Beraz bere siñismena aitortzeagatik Espiritu Santua adierazten duan izenaz deitzen du eta beragatik Espiritu Santuaren semea deitu izatea merezi izan du, Bar-Jona, gure izkuntzaz, usakumea da-ta.

Pedro Deuna Jesukristoren ordezkoa da eta argatik bere Irakasleak bezela ezin du bere erakusketan uts egin: bere ondorengo aita santuen bitartez zerbait erakutsi nai digunian, *ex cathedra*, edo aita santua bezela itz egiten duala, ezin du inola uts-egin eta ezta guri ere gezufik esan, berak baiditu guretzat betiko bizitzaren itzak eta bere bitartez Jainkoagana goaz. «Nik, ordea, zure alde otoitz egin det, dio Jesusek, zure siñesteak uko egin ez dezan; zuk, befiz, zuzpertuta gero, zure anaiak sendotu itzazu» (Resp.) Bere bitartez Jainkoak eraendu eta barkatzen digu, ofen irudia dira eskuan daramazkien giltzak. «Animen artzaia, zorioneko Pedro Deuna, eskaera onak egiten dizkizutenen otoitzak efukiz beterik entzun itzazu, gure gaiztakerien lokafiak zure itzez autsi, gizadiari zeruko ateak ideki eta isteko eskubidea eman baizizun Jainkoak» Apostoluen buru zera ori, ardien artzaia zera zu, zuri eman zizkizun Jaunak zeruko atariaren giltzak» (Ant. Mag.) «Gurutzean bere bizitza emanaz, etsaiak efaz garaituta, sartu zan zeruko bizitegian bertako atezaitzailea» (Him.)

Eskeintza


Nere Jainko guztiz maitagafia, Jesukristoren ordezko Pedro Deunak gaur eskeintzen dizun opari deuna, biotzez bialtzen dizut, Eфомako lenengo Gotzai eta Eliz guztiaren burutzat autatu zualako esker ona erakustea. Zoragafizko Pedro Deunak eman dizun aintza guztia, eskeintzen dizut.

Erabakia

Elizak Pedroren alde Jainkoari egin zizkion otoitzak zein onuragafiak izan ziran gogoratuaz, etsai guztietatik Efoman Pedro Deunaren ordezkoa dan Aita Santua gorde dezala, gaur biotzez esakatuko diot.

Tolosar Marzelino.

O. M. Cap.



Tsinc-how'tik 5-III-34.

INTZA'R AITA AGURGARIARI

Iruñan

Nere biotzekoa: Aspaldi onetan tutik ere idatzi gabe bizi nintzakizula ta, bildur apurtxoenbat ere bannuen, nere ixiltasunagatik aurpegia muker egin da biziko ziñala, baño gaur eskuetaratu dakiten zure esku-titzaren bidez ederki dakust zure biotzeko begiak oraindik gure gauza eta egikizunetan josirik dauzkatzula. Esker mila, adiskide on eta maite oril..

Zure eskutitza eder-edefaren orde mesedetxo bat eskatzen didazu: joan dan urtean emen egin degun lana itz bitan sartu eta Zeruko'tafei gaztigatzeko; ara ba emen natorkizu pozaren pozez eginpide ori betetzeko asmoetan.

Eskuetatik iges egin befi degun 1933'gafen urte ori neketsuenetakoa eta arantzez beteenetakoa izan degu. Gu ala ere naiko pozik.

King-chow'ko naskaldiak

Joan dan urtearen asieran S. Martin'go Alpontxo mixiolari langileak, naiko ler egin da, toki txikitxo bat erosi egin zuen bere etxeko baratza-nolabait ere antolatzeko ametsa goxoetan, baño zori txafean. Arek egindako erosketaren befia, aizeak jotako afautseren erara, alderdi guzietara zabaldu zan, nun nai ezin asma alako esan-mesak sortu erazoaz. Andik eta emendik zirikatuak, laxter elkartu ziran efiko alkate, aberats eta zerbait nastu zezaketzen jende zital guziak «atzefiko txakur maltzufa» (alako izen politaz ixekatzzen gaituzte asefe denboran) zigortu bear omen zan da... bein betiko ortzak erakutsi bear omen zitzakizkion da...

Esan da egin: an asi ziren gauza guztiak nasten. Lenengoz lur-saltzale eta lur erostean guk erabilitako bitartelariak afapatu, ondo zigortu eta... espetxean sartu. Ufengoz mixiolaria andik eta emendik zirikatzen asi, gaur kontu bat zela, biyar befiz beste bat: Gaur, erositako lufa kendu egin bear ziotela, biyar befiz espetxera bota eta nik ez dakit zenbat geyagoko kontuak. Alpontxo Aitak ordea, aize-dunbak jotako pago me-adartsuaren erara

trinko eta zimel, oneri itz onak esan, oferi abegi ona egin, aferi befiz noi-zean bein ortzak erakutsi eta aldi guzietan dirua poltsan ondo gorderik, noiz-pait ere uxatu zituen bere ondotik etsai guztiak; uxatu bai ordea, baña... ufutixago jotzeko eta kalte geiago egiteko asmoetan. Batzafé bat egin zu-ten; guzien artean eskutitza luze kaltegefi bat idatzi, mandariñaren izena atzetik ezafi eta... tapa tapa Lanchow'ko Gobernadorearen gana eraman zu-ten, arek «atze-fiko zakur ausardi putzari» merezi zuan ostikada emango omen zion eta. Gobernadoreak ordea, eskutitza irakufita ostikada galanta eman bai; baño nori ta... eskutitzaren idazleai... ¡Bapo gero! ¡Ura bai gizon argia!

Ostikada arek ondorengo edefak sortuerazo zizkion Alpontxo Aitari: etsaiak pixkaka sakabanatu ziran bakoitza bere txokora befiro txantxetan asteko gogo aundi gabe... Mandariñak, bere aurpegia efiaren afean osoro ez galtzekotan edo konpoera batzuk egin zituen eta egun batzuen buruan osoro ixildu ziran.

Lizartza'r Ander Aitaren istiluak

Nasketa eta egikizun oien soñu latzak oraindik gure belafi inguruan dantzaka zebilzkigula, beste befi askoz latzagoak gure biotzak negaféz be-te zituen. Oraingoan Ander Aita bizi zan efitik zetorzkigun befi oyek. Ofa ba: onek ere toki txikitxo bear-beafezko bat erosi omen zuen. Esandako di-rua eman da etxea beretzako artzera joan zanean, ara nun sortzen dan ezin esan alako iskanbila: efi osoa gure Ander paketsuaren aurka toki apurtxo ura erosi zualako. Zergatik gero ta... «atze-fiko deabruok» (ara beste izen atsegingafi bat) emen lufik erosi ez omen genezalako. Eskefak efiko solda-duen agintariak gure alde aurpegia atera zuela: bestelaz ez dakigu zer ikus-tekoa zan gure Ander Aita gizajoa gau negargafi artan...

Yu'e'tar Julian erukigaría

Iskanbila oyen otsak noizpait ere ixildu egin ziran... Etziran oraindik amar egun igaro ta... beste befi mingafi bat eldu zaikigun «Julian Aita, Si-fengcheng'dik bere mixio-etxera itzultzekoan, mandoak izugafizko ostikada eman kokotzean da bi belafiei odol ugari zeriela omen zegon...» Geroxago jakin nuen Sifengcheng'o Lekaime langileen egipidez odol itufia legortu zala, baño bi belafietatik ezin ezertxo ere entzun... Egun batzuk gero bere mixio etxera eraman zuten: emen Kondrado Anai argiak alegiñak egin ba-ño, gaitza eziñ ordo sendatu, sendagai egokirik etzuelako. Garai artan etofi zakigun, gure mixioan lan egiteko asmoetan, Jesusen Lagundiko ikastetxe ospetsu batean sendalari gaiak osoro ikasitako txinar osalari argi sinisdun bat. Arek ere naiko lan egin baño ezin sendatu osoro Julian Aitaren belafiak, ofetarako bear zituen tresna batzuk etzitualako oraindik erosi. Afen iritziz beafezkoa omen zan Julian gizajoa Shanghai'era bialtzea, an bere gaitza efax sendatu zitekelako, eta azkenez Shanghai aldera jo bear izan zuen. Lau ilabete badaramazki onezkero, baño ezkefeko belafia ezin ondoro sendatu. Jaungoikoak laxter itzuliko al digu alako-mixiolari azkar eta langilea!

Urteko befirik laria

Julian Aita oraindik Shanghai'eko bidean zela, urte ontako befirik la-

fiena zetorkigun. Ara. Zanselipu basefiko mixio etxean Dimako Peñando eta Gares'ko Bartolome Aitak Artazkoz'go Isidro Anaiarekin afaltzen astekotan zeudelarik lapufak joan eta zer gertatu zitzairen ba-dakizute onozkero.

Zortzi egun luzez A. Pernando bizi zanik ikasi gabe egon giñan. Bizi zala ikasi genuen, egiten zigun eskutitza motxau irakurtzean. Laban zofotza biotz erdian sartu baligute ez genduen ain miñ aundirik artuko noski! Ara zer zion: Nere biotzekuak: Bialdu ezazute mesedez lapufei agindu genien dirupilatik oraindik palta dena. Diru ori bialtzen ezipadezute gofiak ikustekoa naiz. Gaur zugaitzatik zintzilikatu ta ezin esan ala gogor zigortu naute. Palta dan dirua bialdu, ta ezpa-naute azke uzten, ez bialdu geiago; orduan... agur nere maiteok, befiro zeruan elkar ikusi arte...»

Bartolome Aitak palta zan dirua bialdu zuen beste goxoki batzuekin batera baño, lengo dolofak, dirua artu, itz onak esan, baño Peñando Aita ez askatu...! Bi ilabetez gofiak ikusi ditu; baño Jaunak itzuli digu.

Nik bakafik esango dizutet gure misio befiak martirien odola bear zuela bere oñari eta zutafiak iraunkor itxasteko, eta odol atsegingafi ori noizpait ere eldu egin dakigula... Odol ori, gure misiolari trebe eta langile Peñando Aitak ain ugari lapufen artean ixuri duena da. Lagundu gaitzazute olako mesede aundiagatik Jaungoikoari eskefak ematen.

1934'gafen urteko lenengo befi iluna

1934'gafengo urte onek ere ekafi digu lenengo befi iluna: Gure Lekaimen langile eta txintxoan loretegitik, eriotzak lore eder eta usaidun bat ebagi omen du. Lore ori Anna'tar Pakipika langile azkar eta mixiolari sutsua da. Joan dan ilaren asieran biotzeko miña sortu omen zitzakion eta amar egunen buruan zerura egatu bear... Jaungoikoak saritu bekio. Sifengcheng'en eta Pingliang'en lau urte auetan egin duen lan gogor eta ixila (G. B.) Oitoitz bero bat gogo txuri-garbi ofen alde!

Agur nere biotzekoa Ufengoan dafaikit ainbeste naigabeen artean Jaungoikoak egin dizkigun mesede aundiak esanik!

ARBIZUKO FELIX A.

Kansuko Mixiolaria.

MENPEKOTASUN GOZOA

(Verdaguer'ena)

¡Jesus on: bai dala astuna
pekatuaren katea!
baña au autsi ta apurtuta
beste lokafi batekin
orain naukazu lotuta.

Zure Jainko-maite-katez
lotu ninduzun bein-batez,
atsekabez-atsekabe
zorionaren eztira
daraman kate legunez.

Loki lasaiez ninduzun
oñaze-gurutzan lotu!
¡Nere Jaun-Egileari
nere anima eman nik
al ba'nio, Zure gisan,
gurutze onen besotan!

Jauregi'tar Koldobika.

AUREN SALA

Zeruko Argia'ren Zuzendariari

Aita guziz agurgafia:

Siñesmen gabeko aurtxoak egunitik egunera geiago maitatzen ditugu. Argatik Misiolariei laguntzeko, al degun guzian goxo ta mizkiñeriak utziz goaz. Oraingoan bi aurtxo bataiatzeko, 40 pezeta bialtzen dizkiogu. Maria Mikaela ta Peło izenak jartzea nai dugu.

Migel Aita Ag'ren eriotzaz naigabe aundia artu degu. Eta egun batzuetan geren otoitzak aren onetan eskeñi ditugu, ain ona zalako etzaigu iruditzen beafik izango zunik baño. Aren eskez atera ditugu argazki batzuek, Txinatafak ezagutu gaitzaten, ori nai emen due-ta. Orain befiro biltzen asi-



Leitzako Monjaen kastetxeko imutikoak

ko gera, gaixo oiek tioso beafean bai-taude. Jesus ere ofela gutzaz pozik egongo da ta gauza guzietan Ark lagunduko gaitu.

Ikastetxeko mutiko ta nexkato guzien izenean diosala gozoa egiten diot eta bere badainkapena eskatzen. Jesus'engan maite-maite du.

Lidia Kajal'ek.

Leize'tik, gaur, 1934'ko IV-7'an.

Leitza'ko Ama Prantziskaren Ikastetxe'ko aurtxoai.

Aurtxo biotzekoak:

Zuen eskutitz xamufa, berortan diozutenaz aberasturik etofi zitzaigun. Eskefik asko, aufak, eskefik asko! Aur askoren agokoak ondatzen dituen goxoak zuek uztea, aundia da. Aundiago oien ordezt Txina'ko aurtxoak ba-

taiatzeko uztea. Pozgafia Txina'ko aurtxoentzat, nola maite dituzuen ikas-
tea; eta ez gutxiago zuek ezagutzea.

Jesusek gogoan izango du zuen eskeñia ta auferako agindua. Ofenga-
tik pozik bedeinkatuko zaitue Berak eta nik ere bai Aren izenean eta gure
Txina'ko Mixiolarien izenean.

Zeruko Argia'ren Zuzendaria.

Aronatik 1934'ko Jorailaren 28'an

ZERUKO ARGIA'REN A. ZUZENDARIARI.

Gure Aita biotzekua:

Ikastola'ko nexka danen artean bildu ditugu txanpon auek. Txinan ibai
baztafetara botatzen dituen ume txikietako bat Kistar egiteko. Miren Aran-
tazu nai genduke izena ezafitzia.

Aufera ere osatuko degu goxuak erosteari utzi-ta. Eguefitako osatuko
ote ditugu beste bi ogerleko?

Kordioan muñ-ematen nexkatxo auek, eta danen izenean idazten dio

Unanue'tar Mariatxo'k



Leitza'ko Monjaen ikastolako neskatxoak.

Unanue'tar Mariatxo'ri ta Arua'ko nexka ikastolakoai

Aur maite-maiteak:


Zuen txanponak eskutitzaz batera iritxi zitzaizkidan zintzo. Aiek Txi-
na'ko bidea laxter eramango dute. Zuen txanpon txikiak txifixtaka Txinako-
aur gaxo aien eskuetaraño joango dira. Beraiei zuen izenean zeruko goxoz
beti gozatzeko eskubidea; euskal izen atsegiña ta lufeko goxoen batzuek
ere izateko bidea bialtzen diegu. Jesus aurtxo zofetan jafi dezute. Ark
emango dizkitzute dagozkitzuen goxoak. Aren izenean bedeinkatzen zai-
tuet gogotik.

ZERUKO ARGIA'REN ZUZENDARIARI


Ikasi, ikasi..!



1.º Ondafabiko itsas baztafa
bai dala toki gozoa!
Udabefiko itsas-aizea,
antxen bai aize afoa!



2.º Manu Kantalu, sudur luzea
itsas baztafez zebilen;
itsas-aizeak txapela artu-ta
kaska motzean jafi zen.




3.º Andik laxtertxo pike ontzia
bidean zuen arkitu;
pike ontzian burua sartuz
piketz ederki beltzitu.



4.º —«Aize, añani!, diotsa Manuk,
nai ba'dek txapela ostu,
txapel beña jantzi dit eta
ezetz au kendu! apustul!»





Protestanteak bera, katolikoak gora dijoaz Eskozia'n

Beri oiek ango protestanteak emanak dira. Miloi bat eta 100.000 izango omen dira beren erlijioari iya begiratzan ez dioten eskoziak: 150.000, oraindik ikastetxera joanafen, eliza utzi duten umeak.

Protestante sendietan jaiotako aufak beti gutxitzen ari dira. Joan dan urtean, 86.546 bakarrik jaio dira, orain ogei ta amar urte baño 47.000 gutxiago.

Katolikoak beriz beti gora dijoaz. 1851'gafen urtean, 130.000 ziran; 1881'gafenean, 327.329; joan dan urtean eldu dira 645.000'raño.

Zergatik ote protestantien gutxitze ta katolikoan zabaltze au? Protestante berak diotenez, efitik kanpora eskoziar asko ateratzen diralako ta oiek utzitako tokiak betetzera, irlandar asko sartzen diralako.

India'tik Eröma'ra öñez

Urte santua itxi baño lenago, 5000 kilometroko bidea egin da gero, India'tik Eröma'ra eldu da gazte bat.

1932'gafengo Urilaren 24'an, Goa'tik atera zan Xabier Monteiro, arzobispoaren idazki edo karta bat berekin zeramala. Bidean arkituko zituen katoliko guztiak eskatzen zien arzobispoak, gazteari begiratzeko.

Bidean afisku aundiak ikusi bear izan ditu, India'ko basoetan, batez ere, baño guzietatik ondo atera da, Jaunari eskefak. Afisku aundienak noski, bere burua bere biziko suge ikaragari baten afean ikusi zuanean eta gero bi eguneko egari iltzeko, ituri baten bila basamortuan ibili zanean.

Eröma'n Aita Santuarekin itzegin da gero, bere efira itzuli da, baño orain goan ontziz.

Irakurgai onak zabaltzen

1932'gafen urtean, Trincomalle'ko (Ceylan) Jose deunaren ikastetxean, ikasle batzuek bildu ziran eta izparingi (periodiku) ta liburu katolikoan alde lan egiteko, asmo sendoa artu zuten. Amabi ilabete oietan, katoliko ez diran irakusle artean 25.000 izparingi ta liburu katolikoak banatu dituzte. Efitiko liburutegi, ikastetxe, gaxotegi ta biltoki guzietara eramaten dituzte Europa ta Amerika'tik bialtzen zaizkien izparingi, aldizkingi ta liburuak.

Alperikako lana eztala esaten dute, gazte oiek artzen dituzten eskef-oneko eskutiz edo kartak; gañera, joan dan urtean, katoliko egin dira bost irakurle.

Inglatera, Irlanda ta Goiko Amerika'n ba-dituzte izparizgi ta liburu zafak bildu ta bialtzen dizkien adiskide zintzoak. Amerika'n 70 urte ta geiagoko gizon batek ortan igarotzen du igandea, atez-ate izparingi zafak biltzen, gero India'ko gazte oiei bialtzeko.

On aundia egiten dute Ceylan'go gazte bikain oiek komunista ta erlijio-ga-

bekoen artean. Izpafingi edo liburu zafa bide dala, aberatsen etxetara ere sar-
tzen dira, gure gauzak ezagurazitzeko. Bestela iritxiko ez lutekena, izpafingi
edo liburuaz irixten dute.

Sinismen Zabalkundea

Sinismen Zabalkundea deritzaion lana Lyon'en jaio zan, 1822'garfen urtean.
Andik eun urtera, 1922'garfenean, XI'g. Pio Aita Santuak Efoma'ra eraman zuen
eta bere ardurapean ipiñi.

Amar urte buru, 1922-1932, mundu guzian bildu omen dira 463 miloi 947.622 lira.

Amerika'k eman ditu	235.434.542,42 lira
Europa'k	220.391.622,22 »
Ozeania'k	3.698.240,46 »
Asia'k	2.719.141,65 »
Afrika'k	1.704.075,58 »

Laterfi Elkartuak (Estados Uuidos) efi guzie auean dijoaz Amar urte oietan
an eman dituzte 197 miloi 841.246 lira. 29 efitan miloi t'erditik gora eman dute.

Prantzia'tik eman ditu 59.703.151,19 lira

Italia'k 36.402.510,20 »

Alemania'k 30.698.341,29 »

Holanda'k 20.721.234,29 »

Belgika'k 10.051.854,43 »

Canada'k 10.991.705,88 »

España'k 10.516.359,43 »

Irlanda'k 10.328.942,27 »

Argentina'k 10.019.095,47 »

Mixioen aldeko lan eder au oraindik ezta efi askotan bear bezela zabaldu,
beste batzuetan asi besterik ez du egin. Sinismen Zabalkundearen lana toki gu-
zietan ondo antolatuko danean eta katoliko guziak, bear dioten maitasunaz, be-
giratuko diotenean, zenbaki edo numero oiek asko ta asko igoko dira, askoz ge-
iago emango da mixioai laguntzeko.

Gaberdiko ezkiak... ta sozialistak

Austria'n gertatu da, ango sozialistak egin zuten azkenengo matxinadan.
Inauteri asteartea zan. Waidhofen deritzaion urian gudari geienak Dollfuss eta
bere gobernuaren alde zeuden. Emen bildurik etzalako, efi gordetzeko, 80 gizon
gelditu ziran eta beste guziak beste uri batera joan ziran. Bere izena Steyr.
Emen indar aundia zuten sozialistak.

Waidhofen'dik 3 kilometrora ola edo fabrika bat zegoen eta emen ere so-
zialistak nagusi. Gudari geienak efitik atera ziralda jakin zuten, eta gau
artan bertan efitra sartzea erabaki zuten, an gelditu ziran 80 gizonak efiar men-
deratuko zituztelakoan.

Iya gaberdia zan, Waidhofen'go ateetara 200 sozialistak eldu ziranean. Etzi-
ran sartu, ezkiak eskefak. Bat-batean, eta esku batek eragin baziñ bezela,
eliz guzietakoak asi ziran beren dunbotsaz bazter guziak betetzen. 200 sozialis-
tak ariturik, bildufez beterik, elkari begira gelditu ziran. Zer esan nai ote zu-
ten, gau ixilean, ainbeste ezkiak? Eu besterik etzitzaien bururatu: efiar beren
asmoak ezagutzen zituzten, efiar ernai zeuden. Ta etofi ziran bidetik, beren
zulora iges egin zuten.

Efiar etzekiten ezer. Ezkiñen joaldia, ango oitura Inauteri asteartea buka-
tzera zijoanean, gaberdian, eliz guzietako ezkiak jotzera oitura dute, garizuma
astera dijoala, kristauai esateko. Oitura eder oni eskefak, Waidhofen'go efiak
etzituen ikusi sozialistak egin nai zituzten basakeri zitalak.

Urte Santu ontan meza asko eman eta entzun dira mundu guzian, Aita Santuaren asmora: 43.731.334.

Estados Unidos'etan eman edo entzun dira 17.633.309; Alemani'n, 13.513.349; Mejiko'n, miloi bat eta 199.309; Polonia'n, 2.263.208; Ingalaterra'n, 100.000'tik gora; Austria'n, 698.001; Italia'n, 532.796; Luxembourg'en, 66.153; Kanada'n, 2.371.258. India'n, miloi bat eta 003. 004 meza entzun dira. ¡Opari ta omen edera Aita Santuari eskeñi diotena, ainbeste meza eman-azi edo entzun dituzte katolikoak!

AMA ETA AMAK

Udazkeneko eguna.

Zerua tarketa estalirik edo eguzkiak argitua.

Astotxo bat bide befian, andre bat gañean duala.

Konkortu-ta bezela asto gañekoa, lufera begira, lotsaz edo.

Bi aldeetan bi guardazibil oñez.

—Nora daramate ori? zioten efiko mutikoak.

—Iruña'ra omen daramate.

—Zergatik ba.

—Aufa il omen du.

Ba-zeukan zergatik izkutatu bere burua eta kopeta (bekokia) buruko zuriaz. Joxepa'k leiotik begiratu ta ura entzutean, suturik bere auzoko beste ama bateri esan zion:

—Ederki egiña, sartu dezatela kartzelan ta ez dezatela andik geiago atera.

—Bai ederki irabazi zeukan ori eta beste edozein gauza. Aur gaxual! Non zeukan ofek biotzal!

Befia andik ordu batzutarako efi guztian bala-bala zebilen X efiko andre batek aufa il omen din.

Entzutekoak ziran ango ama maitatiak biotzik gabeko ama artaz esaten zituzten gauzak. Danak aur gaxuaz efukitzen ziran bere besoetako aingerutxoai musu beroa emanaz. Etzan bat ere andre doakabe aren alde atera. Danen iritzian kartzela ondo irabazia zeukan.

* * *

Gizon enda edo afazetaz itz egiten duan liburu bat begiratzan det ta au agiri dan. Alaska'ko gizon bat gizon bat, ondoan bere andrea onen eskuiko bizkafean ondo-ondo estalirik dagon aur potxolo bat pafifiz, aingerutxo bat dirudi.

Beste leku batean Aprika'ko emakume bizkor bat putzu batean garbiketari belauniko jafirik eta ango jantzi eskasaz, bizkafean zintzilika zaku antzeko gauza bat eta bertan sartu ta zankoloka aurtxo potxolo bat.

Beste ofi batean Drabida afazakoa, Asia'n bizi dana ikusten dute nere

begiak: Ama me samafa da idunestun edo kolare askoz apaindua bere lepoa eta bulafaldea, ango erara erdi jantzia zapi bat eskuiko soñean lotua gefi ondoraño irixten da beko aldetik. Eskui aldetik ezkefera bulafaldea guruzten du: Antxe dauka bere aurtxoa lo gozoan begiak itxiak, besoak zintzili-ka ilak ba'leude bezela; amatzok ezkefeko eskuaz lepotik eusten dio.

Liburuko ofi asko irauli ondoan, Ozeani'ko enda edo afazetaz itz egi-ten duan salari begiraturik, auxe dago nere begien aurfan.

Sumatra'ko iru emakume, Kubu afazakoak, sudur'zabalak, lodiak, inda-ferkoak dira itxuraz, eta maitatiak? Iruak bere aurtxoa eskuiko bizkafetik ge-fiaren ezkefeko aldera dijuan zaku antzeko oial batean daude: amak ezkefe-ko eskuaz bizkafetik eusten die bere biotzeko maitiai; aurtxo batek bere la- gunai begiratzen die; beste biak amatzori begira. Inguruan ba'daude beste bi aur potxolo.

Europa'ko amak bere biotzeko aingerutxoak nolako maitetasunaz be- soetan ibiltzen dituzten ikusten degu gure etxeetan.

* * *

Zer esan nai du onek guziak galdetuko didazute bearbada.

—Aufak iltzea gaizki dagoala aufak eta batek ere amak ezagutzen du- ten bezela. Aurtxo txikiak zaitu bear dituztela gurasoak goian aitatutako ama oiek diotenez. Ama oiek esango dizute: Jaungoikoak ematen dizkigu semetxuak, berak ezin dira guk lagundu gabe bizi, nork lagundu bear dio guk ezpada?

Ama on oiek aurtxoak sortzeko, gero indartzeko bear dutena, ondo emateko, animako gauzak erakusteko gizonaren bear dira. Ofa sendi edo pamilia sorturik. Jaungoikoak aurtxoak nai izan ditu: aurtxoak nai izatean aita laguntzea eta amak laguntzea nai du. Ofetarako alkafekin egon bear, norbait buru izatea bear. Auxe da afazoiak erakusten diguna eta Jaungoi-koak Ebanjelioaren bitartez adierazten diguna. Gure Erosleak erakutsi zua- nez, bein ezkondu ezker bitako bat il arte ez dezakete senar-emazteak al- kafengandik alde egin eta besteakin ezkondu. Senar emazteak aragi bat egi- ten dira ezkontzaren bitartez, eta, jakina, alkar maite izan bear. Au bera adierazten digu afazoiak eta Jesukristo gure Jaunak.

Zein gauza edera dan ama eta aita bere inguruan aurtxo asko dituztela ikustea!

Zein gauza edera aurtxoak gurasoen esanak txintxo egiten ikustea!

Zein gauza edera amatzoa oe-ondoan bere semetxoaren esku txikia ar- tu eta otoitz egiten erakusten ari danean!

Bai zoragafia dala sendi edo pamily kristaua.

Bai nazkagafiak pamilyaren kontrako gaurko erakutsiak.

Irakurle, ez al zaitzu nazkagafi aurtxoa il zuan andrea? Ori fede eska- saren lana da.

Ez al zaizkizu maitagafi aurtxoai bulafarekin batean, animako janaria aingerutxoai ematen diena? Ori uzkurtz edo erlijioari zor zaio.

Osinburu.

ARDO-EGINTZA



ARDOAK EGITEN DIRA

Ardotegiak Alcazar de San Joan'en
(Ciudad Real)

Loidi ta Zulaika

Ufütidazkin |edo Telegrafoa: «LOIDI»

ETXE ONEN LAN NAGUSIA

MEZA SANTURAKO ARDO ZURI GOZOA EGITEN DA
Iruña'n, (Mercaderes, 13) Eusebio Garicano, Ordezkarria.

Donostia

ARTILEZKO EUNAK ERLIJIOSOENTZAT

Juan Romeu Voltá'ren Semia.

Praile ta monjentzako eunak, artilezki edo estameñak, eun-me merinoak, kasimirezkoak, sargak, anaskoteak, eun lodiak, eta tamis'koak. Nai dan zabaltasun eta margotakoak. Margo (koloreak) iraunkorak dira.

Sabadell (Barcelona), Illa kalean, 6'na. 2486'gafen ufutizkiña. «Rolana» izenean arkitzen du ufutizkiña.

Praile ta Monjari eskatzen diegu, eskatu nai duten eun-gaiaren zaitxo bat bialtzeko afen. Eta zein margo ta zein neufitakoak edo zer zabaltasun eta loditasunekoak nai dituzten adierazteko. Ofela agudo ta zuzen bialduko zaiote eskatzen digutena.

Luzera aundia emango diezu zere eliz-argizariei,
argizari bereziak erosten ba dituzu.

Kintin Ruíz de Gaunaren Semeari

GAZTEIZ'EN (Vitoria-España)

Ortarako eskatu berari «Kapitel Gauna».

Itxaso bestealdera ere bigaltzen dira.

ASPAIME

Garatxak (pastilak)



Zertaz egiñak

Gozagafia esne ona euneko bost; regaliz zumoa euneko bost, diakodio zumoa, mileko iru; bei-muñ zumoa, mileko iru; Gomenol, mileko bost; gozagafi menta-anizaua, gafatx bat egiteko naikoa.

ASPAIME

Erabat kentzen dute:

EZTULA

ondatzen dituzte-ta este-estutze, mafanta, eztafi ta zintzur miña, eztafigaitzeko ta biriketakoa, alpeta, itz batean, asnastoki osc-roko miñak.

ASPAIME GARATXAK beste ezagun guzien gañetik daude. Ezta egoki ta jakintsugorik. Agorako goxoak. Sendagai ufintsu ta ariñen zumoa berak bakafik dute. Eztira usteltzen Eta beti azkar, bizi ta agudo erasotzen die asnas-bidetako gaitzai, ortik bai dator eztula ta atsanditzea.

ASPAIME GARATXAK agintzen dituzte sendalariak.

ASPAIME GARATXAK nai dituzte gaxoak.

Beti eskatu egiazko «Pastillas Aspaime» ta ez artu oien ordezeko, ezer gutxi balio du-tenak.

Aspaime gafatxak pezeta batez *kaja* saltzen dira botika ta *drogeria* nagusienetan eta bidenabar utsean ematen da beste *kaja* bat sakelean erabiltzeko ondo datofena.

SOKATARG sendagaitegiako Sendagai Berezia. **LANTEGIA TER KARIKAREN** 16'ean Urutizkiña 50.791, **BARCELONA**.

BEAR-BEAREZKO OARA.—Aspaime gafatxakin bezin agudo ta ofen ondo **EZTULA** beste oien antzekoakin ezin dala kendu, ta gaurkoan oiek bezalakorik eztagoala adierazi ta siñetsiazteko **SOKATARG** Sendagaitegiak ara zer egin duen.

Naikoa dezu **SOKATARG** sendagaitegiari, iragarki auxe ebaki-ta bialdu. Berortako bialiko dizkitzu «Pastillas Aspaime» oiek utsean. Ortarako ebaki au karta-estalki ide kiaren bafuan sartu bost zentimoko selu batekin, ta gañetik bi zentimoko selua jafi.

Salgai dauzkagun liburuak


Loretegi beria. Prantzisko Elizondoar A. Kaputxinoak egiña. Txikiren mar-razkiz jantzia. Liburu Santuetatik artutako edo egiñeak asmatutako gertaera eta ipui oso egokiak.

Or kontatzen ditun gertaera ta ipui bakoitzaren ondoren berari dagokion ikaspide egokia ateratzen du.

Kristau etxe edozeñetako, naiz zafak, naiz gazteak eguneroko bizitzarako asko ikasteko, oso egokia. Euskera ain xamur, gozo ta eritafa du!

Aufai eta gazteai saritzat emateko bere bizikoa. Iru laurlekoz saltzen da.

Prantzisko Santuaren Irugañen Ordenako Ikasbidea. Kristau Ikasbidea-ren antzera galde ta erantzupenetan Irugañendafentzat egiñik dago. Beroien Le-ge edo Eregla oso argi ta egoki itz gutxitan ortxe adierazten zaielako. Bakoitza iru txakur txikiz eta eunka amar laurlekoz saltzen da. Irugañendar guziak bear lukete.



Memoria de la Sociedad Euskeraren Adiskideak, Pamplona, 1933.—Noticia histórica y estado actual del euskera en Navarra con un mapa lingüístico por Angel Irigaray. 1925'eko Agofaren 21'ean Iruña'n sortutako elkarte goragaria-ren beñiak, Irigaray Jaunak laburki damazkigu. Lenik elkarte au politikarik gabe, euskerari datxikona dala adierazten du. Elkarte ontan politika guzietakoak izan ditezkeela. Euskerari, euskal oiturei, euskal dantza ta jolasai eusteko ta in-daia emateko sortua baita.

Napafoko Aldundiaren babespean egon da beti. Irigaray jaunak lan ontan askok atzentzen duten eginkizun bat begitaratzen digu; euskerari laguntzeko eginbidea. Eñi basatiak ez beste guziak, beren jatorizko izkuntzaren alde ari di-rala erakusten du. Napañen ez-jakiñagatik eta axolagabekeriagatik izkuntza mendi-ertz batzuetara baztartuta daukagula. Irurogei ta amar urteren baruan (1563'tik onata) eman diogun uxaldi gogofa agirian jartzen digu. Ortarako egin dun mapan ageri zaigu euskeraren mugak nondik-nora zeuden orduan; eta gaurkoan nondik-nora dauzkagun.—Gero antziñagoko urtetara, begiak jaso-tzen ditu. Eta Lekuonak argitara emandako agiri aipagañi baten bidez *amasei-gaen eunki edo mendea*n Napafoan euskeraren mugak non zeuden agertzen digu.

Euskeraren adiskideak, napañen artean egiten ari geran basakeri aundi bat eragotzi nai lukete ba. Geren izkuntza ondatzen uztean egiten dan basakeria eragotzi nai. Elkarte onek ortarako urtero an-emen euskal-jai batzuek ematen ditu.

Euskerazko liburuak argitaratzen ditu. Euskera erakusten duten ikastetxe-tan sariak urtero ematen ditu Napafoan, apaiztegi edo seminarioan, Lekarotz'-en. Beronek euskal ikas'olak Iruñañ aurfentzat sortu ditu, Lizañan sortuari le-guntza ematen dio.

Toki askotan Txistulari sañak sortu ditu. Eta euskeraz dakiten aurfai non edo au sariak urtero damazkie. Beñi jakingañiak, Irigaraik damazkigunak.

Gero urteko diru-kontuak ematen ditu. Eta azkenean elkartearn bizi-bidea eta elkartearn Eragintzañen izen-leñoa.

Irigaraik asieran diona emen ezariz bukatuko dugu: «Napafoako Euskera-ren Adiskideak» deritzañen elkarteak dei egiten dizu zuri, euskalduna, eta es-katzen dizu diru pitin bat, *xentimo bat bakañik egunean*, euskera pizten lagun-tzeko. Aski da su gutxi biotzean alako ez-deuskeri bat emateko! Guk ordea, la-guntza nimiño ori bera, zuk bezela milek egiten badigute, lan edeñ egin deza-kegu gure euskera edeñaren alde. Zatoz bada gugana! eta gutarik baldin ba-zara, otoi! *gaur berean* egin zazu beste adiskide bat!

ALDIKO LITURGIA

Pentekoste ondoko seigarren igandea.—Igande onetako eliz-otoitzetan gogorapen edo gorazio bat nagusi da: gure pekatuetaz danutu-ta berak ondatu bear ditugula. Ofetarako Brebiarioan Elizak auxe gogorazten digu: Dabid'ek Urias bere gudari edo gefariaren emakumea begi gaiztoz begiratu eta gero berarekin loikerizko pekatua egin zuala eta gero bere serbitzari leiala zan Urias, egiten ari ziran guda edo gefan arisku aundiko lekuan jafiaz, alegia an etsaien iskilu edo armak bizia kendu zezaioten, eta ola loikeriz maitatu zuan andrearen senar gai-xuari emaztea eta bizia kendu zizkiela.

Natan igarle edo profeta, Jaungoikoaren orde, damutzeko adieraztera juan zitzaion. Arek pekatua aitortu zuan damutasunez eta Jaunak barkatu egin zion.

Bertan gogoratzen zaigu onakoa ere: santuak lasterka, alegia ontasunean, juateko gogoia izan afen, batzutan berezko aultasunaz erortzen ba-dira, gero len baño añaño ibiltzeko gogoz altxatzen dira. Ofegatik gizonak pekatuan ez erortzeko Jaungoikoari laguntza eskatu bear dio: au dala ta gaurko Mezako Introitu-
tuan «Jaungoikoa bere efiaren indafa eta sendotasuna dala» esan eta bere efi-
gaizkatzeko edo salbetzeko eskatzen zaio.

Otoitzan «Indafan Jaungoikari» gudan gauden gauza onak sendotzeko eta sendotuak daudenak gordetzeko eskatzen da.

Epistolan Paulo doneak Bataioaren bidez pekatu-rako il gerala eta pekatu-rako ilik egon ezkerro, Jesukristo bezela betiko zorionerako piztuko gerala go-
goratzen digu.

Nola ez beriz pekatu-rako il, aulak eta indar gutxikoak geran ezkerro?

Epistola ondoan auxe esaten da «Jauna zudan itxoin det, ez naiz ortaz lo-
tsatuko».

Zerekin gure anima bizkortu pekatuan ez erortzeko?

Ebanjelioak onako gertaera gogoratzen digu: Jesusek, zazpi ogi eta afai gutxikin lau mila gizonai asetzeraño jaten eman zien.

Ogi auek beste ogi baten irudia dira, Eukaristia'ko ogiarena: ogi ofek be-
tiko bizitza ematen du: au artu bear degu, ogi au jan egin bear degu zerura ju-
teko. Ofertorio edo eskeintzan «gure oñak Jaunaren bidetik» ibiltzeko eskatzen
zaio berari. Sekretan, gure otoitzak ondo artzeko. Jaunartze edo komunioan,
Jaunaren gorapenak edo alabantzak abestuko, kantatuko ditugula. Jaunartze-
ondo edo poskomunioa «Jaunaren emaitzak edo doaiak artu ditugun ezkerro;
aien laguntzakin gu garbitu eta sendotzeko eskatzen diogu Jaungoiko gure
Jaunari.

Pentekoste ondoko zazpigarren igandea.—Igande onetako gogo nagusia ja-
ungoikozko jakinduria da, alegia zerua ematen diguna. Introituan, Jauna aundia
dalako goratzera ots egiten zaigu. Epistolan, pekatuaren zigofada edo kastigua
eta bizi kristauaren saria zein diran gogora ekartzen zaigu, zeruko bidetik gu
ibili gaitezen. Ebanjelioan zeru-
an sartzeko egintza onak bear dirala adierazten
da, Eskeintza edo ofertorian, gure eskeintzak ontzat artzeko Jaungoikoari es-
katzen zaio. Sekreta'n Abel'n eskeintzak bezela gureak santutzeko eskatzen
da. Jaunartzean edo komunioan, gu askatzeko eskatzen da. Jaunartze-ondo edo
poskomunioan, gure gaiztakerietatik askatu eta gauza zuzenetara gu eramateko
eskatzen zaio Jaungoiko gure Jaunari.